



ESCORT KIDS

Athletic Clubek Escort Kidserako jarduera-protokoloaren berri eman du. Escort Kids ekitaldian, **12 urtetik beherako haurrak lehen taldeko jokalariekin batera irtengo dira futbol-zelaira** UD Almeria taldearen aurkako partidari, datorren ostiralean, irailaren 30ean, 21:00etan.

BALDINTZAK

Ekitaldi hori 5 eta 12 urte bitarteko Athletic Clubeko kideentzat soilik da. Klubak ez die zozketan parte hartzen utziko kide ez diren edo adin-tarte horretakoak ez diren haurrei.

SARRERA-KOPURUA ETA BANAKETA

Gehienez 22 sarrera egongo dira: 11 sarrera, Athletic Clubeko kide diren titular txikientzat, eta beste 11, haurrekin doazen guraso edo legezko tutoreentzat (bat haur bakoitzeko).

ESLEITZEKO SISTEMA

1. Baldintza guztiak betetzen dituzten Athletic Clubeko kide guztiak eman dezakete izena web-inprimaki [honetan](#). Epea irailaren 25era arte egongo da irekita. Haurren izen-abizenak, bazkide-zenbakia, jaioteguna eta tutorearen harremanetarako telefono-zenbaki bat adierazi beharko dira.
2. Haur bakoitzak behin bakarrik eman ahal izango du izena.
3. Epea amaitu eta hurrengo egunean, zozketa egingo da eskatzaileen artean, eta irabazleen Athletic Clubeko bazkide-zenbakia argitaratuko da. Gainera, Kluba guraso edo tutoreekin harremanetan jarriko da, telefono bidez, baimen-agiriaren bila joan daitezten.
4. Irabazleen guraso, tutore edo legezko ordezkariak baimen-agiria sinatu eta clubathletic@fundacionathleticclub.eus helbidera bidali beharko dute, irailaren 28ko (asteazkena) 9:00ak baino lehen. Bestela, ekitaldian parte hartzeari uko egiten diotela ulertuko da.
5. Irabazleen guraso, tutore edo legezko ordezkariak, horiekin batera, partida egunean bertan jasoko dute sarrera, klubak adierazten dituen jarraibideen arabera.

ZELAIRA IRTETEKO PROZEDURA

1. Partida hasi baino 60 minutu lehenago egon behar dute bertan (irailaren 30ean, 20:00etan).
2. Zelaira joateko, kazetarien sarbidea erabili behar dute. La Campa de los Ingleses tabernaren ondoan dago, 0 atean.

ATHLETIC CLUB

ERAKUNDEAREN EGOITZA - SEDE SOCIAL - HEAD OFFICE
Palacio Ibaigane. Alameda Mazarredo, 23 48009 • Bilbao (Bizkaia) • T. +34 94 424 08 77

SAN MAMÉS ESTADIOA - ESTADIO - STADIUM
Rafael Moreno Pitxitxi s/n 48013 • Bilbao (Bizkaia) • T. +34 944 06 18 98

KIROL INSTALAZIOAK - INSTALACIONES DEPORTIVAS - SPORTS CENTRE
Garaioltza, 147 • Lezama (Bizkaia) • T. +34 94 455 60 88

www.athletic-club.eus





3. Hurrekin joango diren guraso, tutore edo legezko ordezkariak soilik jaso ahal izango dute sarrera, aldez aurretik baimena jaso ondoren eta NANA aurkeztuta.
4. Pertsona horiek, aldez aurretiko baimenarekin, eta Athletic Clubeko langileek aldageletaraino lagunduko diete hurrei. Han, aldatu eta Athletic Cluben elastikoa jantziko dute. ATERPE haurrak babesteko protokoloari jarraituko zaio une oro.
5. Laguntzaileek San Mameseko skybox batetik ikusi ahal izango dute haurrak nola ateratzen diren futbol-zelaira. Ekitaldia amaitutakoan, hurrekin batera partida ikusi ahal izango dute.
6. Klubeko langileek aldageletako tunelera lagunduko diete hurrei; han, lehen taldeko jokalarien zain geratuko dira.
7. Haur bakoitza jokalaria baten ondoan jarri eta harekin zelairatuko da.
8. Zelaian daudenean, jokalaria horren aurrean jarriko da hasierako formazioan. Jokalarien zerrendako izenak esan ondoren, haurrak zelaitik irtengo dira.
9. Klubeko langileek skyboxeraino lagunduko diete hurrei, partida laguntzaileekin ikus dezaten.

DATUEN BABESA

Zozketan parte hartzeko izena ematean, sarrera hartu eta estadiora joatean, ekitaldi honetan parte hartzen duten haurren gurasoek edo legezko tutoreek BAIMENA EMATEN DUTE semearen edo alabaren irudiak hartzeko eta/edo ahotsa grabatzeko, 2022ko irailaren 30ean Escort Kids Esperientzian parte hartzen duten bitartean. Horretarako, ATHLETIC CLUBi lagatzen dizkiote irudi-, izen- eta/edo ahots-eskubideak, edozein euskarritan eta edozein komunikazio-modutan erreproduzitu, argitaratu edo erabili ditzan.